



MINISTERIO
DEL INTERIOR



IBILGAILUEN MATRIKULAZIO ARRUNTA

GARRANTZITSUA: Edozein buruzagitzatan izapidea egin baino lehen, aurretiko zita eskatu behar duzu.

NOTA INFORMATIVA

- **Eskaera** inprimaki ofizialean. (www.dgt.es/orrialdean/inprimaki/eskuragarria)
- **Tasa** 97,80 €ko zenbatekoa, ziklomotoreak izan ezik 27,30 €. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik)
- **Interesdunaren identifikazioa:**
 - Pertsona fisikoak: dokumentu ofiziala, tituludunaren nortasuna eta helbidea egiaztatzen dituen (NAN, gida-baimena espainiarra, egoitzartxartela, pasaportea gehi Atzerritarren Identifikazio Zenbakia).
 - Pertsona juridikoak: elkartearen identifikazio fiskalaren txartela eta ordezkapena egiaztatzea eta sinatzen duenaren nortasuna ([Eredu eskuragarria www.dgt.es/orrialdean](http://www.dgt.es/orrialdean))
 - Adingutxikoak edo ezgaituak: aita, ama edo tutorearen datuak eta sinadura, bere NAN.-a eta iharduten duten kontzeptua egiaztatzen duen dokumentua.
- **Ibilgailuaren dokumentazioa:** ITV txartela elektronikoa (NIVE) edo ITV txartela paperean salmenta-eginbidez edo, hori ezean, fakturaz edo adjudikazio-aktaz enkantetik etorri gero.
- **Zergak:**
 - Eskatzaileak helbidea duen Udaletxearen Zirkulazio-Zergaren ordainketa edo esentzioaren egiaztagiria (*original edo fotokopia*).
 - Matrikulazio-Zergaren ordainketa/esentzio/ez atxekipenaren egiaztagiria (Zerga Agentzia Estatalaren 576, 06 edo 05 eredu, www.aeat.es) izan ezik erremolkeak.
- **Aurreko dokumentuez gainera:**
 - **Nekazaritzako ibilgailuak:** Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Makineriako Erregistro Ofizialean izen-emateko ziurtagiria, DGTren Ibilgailuen Erregistroan egiaztagiri telematikoa izan ezik.
 - **Garraio-ziurtagiria:** autobusa edo 6 tona baino handiagoko BGMko eta 3,5 tona baino handiagoko zamarako salgaiak garraiatzeko ibilgailua bada, DGTren Ibilgailuen Erregistroan egiaztagiri telematikoa izan ezik.
 - **EBan erositako ibilgailu berriak:** BEZ ordaindu dela egiaztatzea (Zerga Agentzia Estatalaren 309 edo 300 eredu) edo BEZaren norbanako pasiboen eroldan dagoela egiaztatzea eta IIT-ak emandako fitxa teknikoa.
 - **EBan erositako ibilgailu erabiliak:** ibilgailuaren jatorrizko dokumentazioa eta, gainera:
 - Partikularren arteko salmenta bada, salerosketaren kontratua, itzulpenarekin batera eta Ondasunen Igorpenen Zerga.
 - Ibilgailua Espainia ez den beste herrialde bateko salerosketa bati erosten bazaio, BEZ zenbakia agertuko duen faktura ekarriko da.
 - Ibilgailua Espainiako salerosketa bati erosten bazaio, faktura eta Ogasunak jaulgitako agiria ekarriko da, dagokion ekitaldian zehar jarduera horretan alta emanda dagoela justifikatzeko.
 - IITak emandako fitxa teknikoa.
 - **Hirugarren herrialdeetan erositako ibilgailuak:** Ibilgailuaren dokumentazio originala eta Aduanak emandako Dokumentu Administratibo Bakarra (DAB), izan ezik IIT txartelean ibilgailuaren inportazioaren diligenza agertzen den kasua.

OHARRA: Izapidea titularrak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena eta bere NANA beharrezkoa izango dira, non doaneko izaera adieraziko den (www.dgt.es-n eredu eskuragarria).

Goian eskatutako daturen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.